



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO MAIATZAREN 11N TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Itziar Arratibel Imaz
Jon Mikel Iglesias Otegui
Maria Iciar Jauregui Huarte

Ibarran 2018ko maiatzaren 11an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2018KO APIRILAREN 27KO AKTAREN ONARPENA

2018ko apirilaren 27an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko apirilaren 27an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-TOLOSALDEA MANKOMUNITATEAREN HONDAKINEN INGURUKO EKARPEN EGITEAREN ONARPENA (MARTXOKOA)

2018ko maiatzaren 07an 947 erregistro zenbakiarekin Tolosaldea Mankomunitateak 28.925,16 euroko ekarpena egitea eskatzen dio Ibarra Udalarari, Ibarra udalerriko hondakinen bilketa eta kudeaketagatik.

Aurkezturiko ekarpenaren desglosea aztertu da eta egoki dela ikusi da.

Guztia aztertutik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak Ibarra Udalarari eskatzen dion 28.925,16 euroko ekarpena egitea, Ibarra udalerrian hondakinen bilketa eta kudeaketagatik.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio hau jakinaraztea Tolosaldeako Mankomunitateari (E) eta Kontuhartzaitzari (E)

HIRUGARRENA:

3. 2018KO MAIATZAREN 8KO KIROL BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIA:

3.1 KIROLDEGI ZERBITZUAREN KONTRATUA BERRITZEA

Ikusita, 2018ko maiatzaren 24an amaitzen dela Ibarra udalak duen kontratua Kiroldegi zerbitzua ematen duen BPXport enpresarekin.

Ikusita, kontratua sinatu zenetik 3 urte igaro direla eta pleguen arabera oraingoan urtebeteko berritzea egin daitekeela.

Kontuan harturik, luzapen hau dela kontratuaren arabera egin daitekeen azkena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan harturik, udala konforme dagoela BPXport enpresak kiroldegian egiten duen lanarekin.

2018ko maiatzaren 8an eginiko Kirol batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Kiroldegiko zerbitzua kudeatzen duen BPXport enpresarekin Udalak duen kontratua urtebetez berritzea, kontuan hartuz hau izango dela egungo kontratuarekin egin daitekeen azken luzapena.

BIGARRENA.- BPXport enpresari kontratua berritzeko asmoa agertzea eta beraien baiezkoa adierazten duen dokumentua eskatzea.

HIRUGARRENA.- Datorren urterako plegu berri batzuk prestatzen hastea.

LAUGARRENA.- Erabakia BPXport enpresari jakinaraztea. (E)

LAUGARRENA

4.- GALDERA ETA ESKAERAK

Ez dago galdera eta eskaerarik

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamasei zirenean, eta nik, idazkari naizen honek, horixe egiaztatu nahi dut